
AINGURAK

-Arane eta Sareri-



Karlos Aretxabaleta Ormaetxea

2023ko maiatzean Deustuko Unibertsitateak

saritutako obra

SAREGILEA

Aita, lekurik ez zenuen nire bihotzean,

zoko hura aspaldi ukatu nizun.

Haatik, behin, itsas-labana ostu nizun,

eta goitik behera urratu nuen bihotz kutxa

arrakala mingarri horretatik zeure izena

sartu eta betiko zokoratu zedin;

mamu artean. Damurik ez dut.

Portua atzean utzi nuen egunean isuri

nituen malkoak

odol tantak ziren, maitasunez ziprirtinduak,

eta itsas-zirimolekin nahastu ziren noizbait.

Gurean , amonaren gorua jira-bira zegoen
egongelan,
eta orratzak, zainak jipoituz,
aski baretu zuen amak ere bere
barnean zeraman arrangura.

BERMEO, 1986

Itsasoan, dagoeneko, bigarren mailako marinelik edo herritarrik ez dago; lurlean bai, ordea.

Bigarren mailako marinela herriko zoroetxetik ikus daitekeen beste plaza ilun eta ospel batean ostenduta daude; portu zaharreko plazaren gibelean.

Ostenduta daude: preso.

Gasolina esnifutzen eta heroina txutatzen.

Txuta talde osoarena da; aspaldi boterea herritarrena zen bezala.

KAMAROTEA

Gaurkoan, goizero bezala,

oraindik kresal zaporea ezpain artean

dudala,

kamaroteko konketako ispiluaren aurrean

paratu naiz.

Istant batez, begiak itxi ditut eta gazte

denborako bisaia irudikatu dut neure

baitan.

Begiak zabaltzerakoan, ordea... Kraska!

Ispilua mila pusketan kraskatu da,

bestelakoa baita aurrez aurre dagoen itsas-

mutila: dagoeneko arraildua.

Eskerrak goizeko kafeak itsasgarri lana
egiten duen nire memoriaren xaflekin.

Tamalez, ez diot luzaroan eutsi zurikeriari;
zakua hartu eta... kraska!

Dosiarekin zuritu dut sudurra.

Aitzakiekin zuritu dut gezurra.

Diruarekin zuritu dut beldurra.

Jolas hutsa balitz bezala,

papelina hartuko dut,

tentu handiz,

eta hankaz gora jarriko dut

barruaren hautsa,

ispiluaren puskak berriz ahoka daitezen.

ITSASOARI ODA

Itsaso maitea, zeuk gaztetan egin bezala,
gaur ametsetan nengoela, ni zu bilakatu
naiz, eta zu ni bilakatu zara.

Ametsetan barrena, arimaren
barrunbeetara soilik hel daitekeen labana
herdoila erosi nion orain gutxi portuko
marinel bati.

Eta Andre Marietarako, propio, arrantzatua
den hegaluzea izango banintz bezala, nire
burua zabaltzeari ekin diot oraintxe bertan
komuneko perrailean.

Beldur naiz. Izerdi gorria, izerdi hotza irten
baita ene gorputzeko zirrikitu guztietatik.

Ene sudurrak, negar-malkotan tantaka,
herriko iturria zer dirudi ba!

Banoa. Bisturiaren mutur zorrotza sartu dut
bular aldean eta miseria jarioa geldi ezina
da. Minik ez, tutik ez.

Giltzek atea zabaltzen dituzten bezala,
herdoilak jandako labanak nire gorputz
ihartua ireki du goitik behera, bular
beltzetik ia-ia lurrera; bestelako ziorik
izango ez balu bezala.

Birikiak atera ditut, gibel urdina ere bai.
Hesteak atera ditut, zainak eta arteriak,
baita barea eta pankrea ere. Saihets
hezurrak atera ditut, urdail zikina eta heste
gorria ere bai.

Azkenik bihotza atera dut, eta orbita aspaldi
galdu zuten begiekin arretaz begiratu diot.

Dantzan dabil oraindik, taupaka oraindik,
erritmoa gorde ohi duen traineruak bezala,
tempoa galdu barik. Gorputzetik atera
ditudan altxor guztiak bezala, bihotza ere
bazter batera bota dut, kala-txoriak dauden
bazterrera; ez baita bilatzen ari naizena.

Non dago, bada, neure arima? Edo zeurea,
alegia. Eskuekin tolesturak hartu eta
akordeoia bainitzan, aurkitzen ahalegindu
naiz. Horretan tematu naiz, baina deus ez.

Nik uste nuen itsasoak arima izan bazuela.